

Gaitza eta Jainkoaren esku hartzea

Gaitza bada, zalantzan jartzen ote du horrek Jainkoaren existentzia?

Gaitz/sufrimenduaren esperientziak giza existentziari buruzko galdera eragiten du eta Jainkoak horren inguruan duen esku hartzea zalantzan jartzen. Batzuentzat, munduan hedaturik den gaitza egundokoa da eta, ondorioz Jainkoa ezin da existitu. Nola onar dezake Jainkoak hainbeste gaitz? Delako pertsona horien ustez, Jainkoa bada, ezin da gaitzik izan eta gaitza begi-bistan eta geure barruan dugunez, ezin da Jainkorik izan.

Beste batzuek bi errealitateak onartu nahi dituzte eta arrazoiaren arabera azaldu. Beraien esanetan, gaitza “Jainkoak gure bekatuengatik jartzen digun zigorra” izan daiteke edo “patuaren indarrez” gertatzen dela. Nahaspilatik ateratzeko arrazoiak bilatzen dituzte baina ez dute argudio baliozkorik aurkitzen eta, azkenean, zalantzas inguratuta geratzen dira. Badira gaitza Jainkoak beretarrei beren leialtasuna frogatzeko bidaltzen dien “froga” dela uste dutenak ere, baina, gure seme-alabekin horrelako zerbait egiteko gauza izango ote ginateke?

Ez da zuzena guk geuk gure ingurukoekin inoiz izango ez genituzkeen jarrerak Jainkoari leporatzea. Inork ez luke bere seme-alaba gaitz larria bidaliz zigortuko edo frogatuko. Nola egingo du horrelakorik Jainkoak? Orduan, zein da Jainkoaren eta gaitzaren arteko lotura?

Jainkoak “ezagutzen du” sufrimendua eta lagun egiten die sufritzen ari diren seme-alabei

Jesukristoren Jainkoak, maitasunaren eraginez mundua sortu duenak eta gizakiari askatasun eta burujabetza eman dionak, errespetatu egiten ditu sortutako izadiaren legeak eta sortutako pertsonak askatasunez egiten duen erabilera. Berak ezin digu saihestu gure mugagabetasunak eragindako sufrimendua (gaixotasuna, heriotza), eta ezin du esku hartu gizalegezko bideetatik joateko dugun ezgaitasunean (norberekoikeriak, bidegabekeriak, zapalketak...). Bestela, Jainkoaren esku dauden txotxongiloak baizik ez ginateke izango.

Baina Jainkoak ez du mundua sortzen gero jaramonik ez egiteko ere. Ez da gertatzen denaren begirale hutsa. Jainkoa, Aita-Ama maitekorra izanik, bere seme-alaben bidelagun da eta lagun egiten die bizitzan gertatzen zaien guztian. Bibliako kontakizunetan ikusten dugu nola Jainkoa bere kreazioan behin eta berriz agertu izan den, gizakiaren sufrimenduekin sufritudz, errukiz, elkartasunez eta maitasunez (Has 4, 8-10; Ir 3, 7-10).

Jainkoak ezagutzen du giza sufrimendua Jesusengan. Giza bizitza ezagutzen duelako eta, gainera, Berak, Jesusen bidez gizon eginez, jazarpena, onarpenik eza, indarkeria... jasan dituelako. Sufrimenduari aurre egiteko eraren zeinu gorena bere Semearen nekaldi eta heriotzaren paradoxa da: kolpeak, zauriak, era guztietako sufrimenduak onartu eta jasan zituen, gero gaitz guzti hori gaintzeko.

Jesusek ez zuen sufrimendurik nahi izan

Jesus gizon egindako Jainkoak ez zuen sufrimendurik nahi izan ez beretzat ezta besteentzat ere. Bizitzan, batez ere, gaitzaren aurka borrokatu zuen indar guztiez. Ebanjelioan, makina bat pasarte aurkituko dugu non Jesusek aurre egiten dien atsekabez beteriko egoerei, irtenbidea ematen saiatuz. Baztertuen alde egitea eta dagokien duintasuna berreskuratzen laguntzea, gaixoak, gaitzez hartutakoak... sendatzea, funtsezkoa da Jesusen Berri Onean. Gaur egungo teologo batek, Jesusi begiratu eta *gaitzaren aurkako* Jainkoa ikusten du Berarengan (Torres Queiruga).

Hain zuzen ere, sufrimendua hurbiletik ezagutu zuelako, sufrimendua eragiten duen guztia salatu zuelako, sufrimendura eramán zuten Jesus: gurutzean hiltzera (Lk 4, 16-21). Berak ez zuen sufrimendua bilatu, ezarri egin zioten, Berak anai-arreben aldeko maitasunezko bizitzaren ondorio bezala onartu bazuen ere.

Jesus ez dator mundura gaitzaren arazoa konpontzera. Baina, gure antzeko gizon izanik, sufritu egiten du eta sufrimendu eta heriotzaren aurrean duen jarrerarekin horiei nola aurre egin behar diegun irakasten digu.

Berpizkundearen esperientziak dinamika sendatzailean, salbatzailean murgiltzen gaitu. Eta Jainkoak, dinamika horretan, zera ikusarazi nahi digu: gaitzak, sufrimenduak eta heriotzak ez dutela azken hitza bizitza honetan eta badugula arrazoirik zentzuz, itxaropenez eta konfiantzaz bizitzeko, Bera ondoan dugulako, baita gure bizitzako unerik zailenetan ere.

Gure gotzainek hauxe zioten 1988ko Garizuma-Pazko aldiko Pastoral Idazkian: *“Jainkoaren isiltasuna gure atsekabearen aurrean, gurekin batera sufritzen duen eta gure atsekabeen bertan ere bizi den Jainkoarena da”*.

